

Poza! Jainko-txinpart eder,  
Eliseo'ko alaba,  
Suz ordiak sartzen gaitun  
zerutar gaindegira.

IBALAN

## GETSEMANI'KO BARATZA

Izarrak, urrutira, sorgor eta aldakaitz,  
Bideoker-unea argituaz zeuden.  
Oliondoak zuten estaltzen mendia  
Ta Kedron ibaia andik ur zijoan lerdan.

Erdian, zelai dana bertatik zan austen,  
Ta gibeletik Esne-bidea nun asi.  
Buru-as ta zidarkoi, oliondo zarrak  
Gorantz iges nai zuten osoan urruti.

Guenean begira landa-baratze bat.  
Esi-oste ikasleak utzirik, diñotse:  
«Txit larri dut gogoa, iltzeko zorian;  
Itxoin, ernai alere Nerekin zaudete».

Eta ukoz utzi zizun, aitzaki-indar gabe,  
—Emana agian utzi bear oi dugunez—,  
Bere alatz-kemena, oro-altasuna;  
Ta orrela, gizon bat dugu geigo, gen lez.

Gauetzko zabalgoa, lur iñor gabea  
Zirudian, ezerez-leku, utsaren ustai,  
Gaudia txit zalarik etze bezin suilla:  
Baratzea zan soilki bizitzearen gai.

Eta sakon oieri so egiñik tinko,  
Ez astapen ez amai, uts eta zurbiltsu,  
Beregandik erio-ontzia urruntzeko  
Odol-izerdiz zion Aitari eskatu.

Otoiketean larria pizkat samurturik,  
Esi osterera itzul zan. Ta belar gainean,  
Lo-zorroaren mende ikasle-taldea  
Lasai zetzan kurrunka bide-egal ezean.

Esna zitun ta esan: «Nikin izateko  
Autu zinduen Jaunak. Baiña zuek lo-naiz.  
Ordu dugu, aldia betea jadanik:  
Loituen eskuetan utzi bearra naiz».

Itz egin zunekoxe, giza-talde gaitza  
Zangar jeiki zan, mutil ta jopuz egiña;  
Argi-espata ugari, ta Judas aurrenen,  
Laztan etoia zula espain gainez fiña.

Beingoan or mutill bat belarririk gabe.  
Dirdir darabil Kepa'k espatea aidean.  
Kristo'k: «Ire iskillak ezin duk ezertxo.  
Gizon, sar zak espata zorro-sabelean.

»Aitak, nai ba'lu, igorko lizkidake ziur  
Egaldun gudariak mil-milloika ere,  
Ta joko litukete ene etsaiak oro  
Illerik ere neri makur-azi gabe.

»Baiña bizi-idaztia idekia dugu  
Orrialde bikain ta donean. Oraintxe,  
Idatzita dagona zintzorik beteko.  
Utzi, ba, gerta bite jadanik. Olantxe.

»Gizaldiak dakusa; ta, alegi bat antzo,  
Ibilia auts gaberik ditzake piztazo.  
Aundian da izugarri, ta bere izenean  
Opazko lor-oiñaze artean naiz ilko.

»Baiña iru egun barru, berriz naiz piztuko.  
Ta ibai beera doazin baltsaen antzera,  
Iarraika, Neregana, ta nik epaitzeko,  
Illunpetik aldiak aterako dira.»

BORIS L. PASTERNAK